



## Lan deialdia: Nafarroako Bertsozale Elkarteko irakaslea

Nafarroako Bertsozale Elkartek **bertsolaritza irakasle** bat behar du, Sakanako ikastetxeetan eta Bertso Eskoletan eta Lekunberriko zein Beteluko ikastetxeetan aritzeko. Curriculum Vitaeak eta motibazio gutunak aurkezteko epea: 2022ko ekainaren 13a, astelehena (barne).

### Eskaintzen da:

- Lanaldi erdiko kontratua. Ordutegi moldagarria.
- 2022ko irailaren 1ean hastekoa.
- Lan lekua: Sakanako Ikastetxe eta Bertso Eskoletan, eta Lekunberriko zein Beteluko ikastetxeetan.
- Urtean 15.822,82 euroko soldata gordina

### Eginkizun nagusiak:

Nafarroako Bertsozale Elkartearen hezkuntza proiektua Sakanan, Larraunen eta Betelun garatzeko irakasle baten bila ari gara, lanaldi erdiz. Hauek dira langilearen funtzio nagusiak:

- Hezkuntza Arautuko *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa ematea, Sakanako 10 ikastetxetan (13 talde), Lekunberri (2 talde) eta Betelun (talde bat). Talde bakoitzean, oro har, 15 asteko programa aurreikusten da.
- Sakanako Bertso Eskoletan irakasle aritzea (asteko arratsalde batzuetan). Une honetan, 3 Bertso Eskola talde aurreikusten dira (horietatik bi urte osokoak -30 saio- eta beste bat urte erdikoa -15 saio-), baina talde berriak sortzekotan hark ere hartuko lituzke, lanaldia proportzioan handituz.
- Sakanako eta Larraungo bertsolaritzaren hezkuntza proiektuaren eragiletza lana: herriko eragileekin interlokuzioa, matrikulazio kanpaina hedatu, aisialdi jarduerak antolatu, ikuspegi oso eta estrategikoa txertatu...

### Eskatzen da:

- Unibertsitateko lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua izatea.
- Bertsogintzan eskarmentua izatea; bertsolaritza eta euskal kultura ongi ezagutzea.
- Euskara maila altua izatea (EGA titulua edo balioduna).
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

### Baloratuko da:

- Sakanako/Larraungo eskualdearen ezagutza.
- Haur eta gazteekin didaktika alorrean aritu izana.
- Bertsozale Elkartearen proiektuaren eta jardunaren ezagutza.
- Kudeaketarako eta bulego lanetarako gaitasuna.
- Izaera planifikatua, ordenatua, ekintzailea eta dinamikoa izatea.

Interesa duenak **Curriculum Vitae-a** eta **motibazio gutunak** bidali behar ditu Nafarroako Bertsozale Elkartera (nafarroa@bertsozale.eus), **2022ko ekainaren 13ra bitarteko epean (barne)**. Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat helbide horretara edota deitu: (+34) 948 14 37 47.